

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 766/2016 Erabakia, azaroaren 22koa, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoko zenbait toki erakunderi Obra Txikiak Egiteko 2017ko Programako laguntzak emateko deialdia

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan obra txikiak egiteko laguntza programak arautzen ditu.

Arau horren III. tituluaren obra txikiak egiteko programaren inguruko xedapenak ezartzen dira, bai eta horrelako laguntzak emateko arauak eta irizpideak ere.

Programa hori Arabako Foru Aldundiaren aparteko tresna bat da, lurralde historikoko toki erakundeei finantzaketan laguntzeko; funtsaren helburua da laguntzak ematea Arabako toki erakundeetan egin beharreko 35.000,00 euro baino gehiago ez diren inbertsioak finantzatzeko.

Ondorio horietarako, eta otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena, ezarriz, onartu egiten da Obra Txikiak Gauzatzeko 2017 Programaren barruan Arabako toki erakundeei emango zaizkien laguntzak arautzen dituen deialdia.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko deialdia, Obra txikiak gauzatzeko 2017 Programaren barruan emango diren laguntzena, alegia.

Bigarrena. Dirulaguntzen konpromisoak kuantifikatu dira ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan obra txikiak egiteko laguntza programak arautzen dituenak, 3. artikuluan -Diru Hornidura- xedatutakoa aplikatuz.

1. Arautzea

Programa, berriz, arau honetan ezarritakoaren arabera dago araututa: ekainaren 27ko 21/2013 Foru Araua, III. tituluaren arabera.

2. Diru hornidura

Arabako Foru Aldundiaren 2017rako aurrekontuak 10.2.03.16.01.768.00.01 "Obra txikiak egitea" partida jaso beharko du. Partida horren diru hornidura kalkulatzeko, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan obra txikiak egiteko laguntza programak arautzen dituenak, 3. artikuluan -Diru Hornidura- xedatutakoa aplikatu da. Zenbateko hori hasierako esleipena izango da, eta 1.223.900,98 euroan finkatu da, 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenen, 23. 2 b) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurrekontuan hasiera batean izendatutako zenbateko hori handitu ere egin daiteke aurrekontu baliabide nahikoak egonez gero.

Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidan kreditu erabilgarria egotea.

3. Eskaerak aurkezteko epea, lekua eta modua

Laguntza eskaerak aurkezteko epea hilabete (1) izango da, deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean eta Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinaturik duten toki erakundeen erregistro orokorretan aurkeztuko dira, eta ez da eragozpen izango horri buruz 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, xedatutakoa eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 3ko 37/2011 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren agirien erregistroen arautegia onartzen duenak, araututakoa aplikatzeko.

Eskaera, osoko bilkurak behar bezala onartua, horrexetarako emandako inprimaki ereduari aurkeztu beharko da, eta harekin batera aurkeztuko dira egingo diren lanen aurrekontu xehatua edo balorazioa -kostua eta BEZa adieraziz- eta hirigintza arloko teknikari aholkulariak egindako egiaztagiria, non berariaz azalduko den ea beharrezko den edo ez jardun horretarako proiektu teknikoaren beharra egiaztatzen bada, obraren aurrekontua edo balioespena aurkeztu beharrenean, obrak burutzeko proiektu teknikoaren aurkeztu beharko da, non orobat jaso beharko baitira Eraikuntzaren Kode Teknikoaren 1. eranskinean finkatutako agiriak eta edukiak. Eranskin hori martxoaren 17ko 316/2006 Errege Dekretuak, eraikuntzaren kode teknikoaren onartzen duenak, onartu zuen.

21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan 5. idatz zatian ezarritakoaren arabera, EZINGO DA ESKATU laguntzarik Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailak kudeatzen dituen beste laguntza programa batzuen baitan eskatu diren edo 2017rako deialdietan eskatuko diren obretarako.

Jarduna zoladura jartzeko baldin bada edo jardunaren barruan zoladura ere jarri beharra sartzen bada, aurkeztutako aurrekontua edo balorazioa behar bezain zehatza izan beharko da, zenbat metro koadroz ari garen jakiteko eta zer material erabiliko den ere jakiteko.

Hauexek izango dira, 2017ko ekitaldirako, 21/2013 Foru Arauaren 18.1.b artikulua aipatzen dituen moduluak:

- Aglomeratu asfaltikoa: 35,20 euro/m².
- Hormigoia edo besterik: 44,92 euro/m².

4. Obren tipologia

Zein jardun gauzatzeko eman daitezkeen laguntzak: 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota dauden izaera dutenak.

Hala, 17. artikuluan horren idatz zatiak aipatzen dituen jardunak gauzatzeko, organismo eskumendunen baimena eta/edo aldeko txostena behar bada, jardunari ekin baino lehen eduki beharko da.

Proiektu teknikoaren behar izanez gero, eskatzen den obraren jarduna bakarrik jaso beharko da proiektu tekniko horretan. Ez da aurkeztutzat joko proiektu bat, baldin eta jardun zabalago batzuei badagokie eta eskatutakoa horien zatia bada.

Baldin eskatutako jarduna Hornidura edota saneamendu sareen zati baten konponketak, hautemandako gabezien ondorioz izeneko epigrafean sartuta badago, honako hauek aurkeztu behar dira:

a) Hautemandako gabeziei buruzko agiriak (konponketen fakturak...)

b) Bestela, horren ordean, udaleko teknikari aholkulariaren txosten teknikoaren aurkeztu ahalko da, non azalduko diren hautemandako akatsak, haien izaera, garrantzia, antzintasuna eta haren iritzi eskaera aztertzearen interesgarri izan daitezkeen beste edozer.

Baldin eta eskatutako jarduna AFAREN Errepide Erregistroan sartutako bideetan egin beharreko obretarako bada, eskaerarekin batera AFAko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak egindako aurrekontua edo agiri teknikoaren aurkeztu beharko da. Gisa horretako obretarako, mantentze edo garbiketaren lanak ere sar daitezke, eta salbuespenez akaberaren zurruntan (hormigoia edo asfalto akaberak) egin beharreko lana sar daiteke baldin eta baldintzak fisikoak (esaterako malda handietan lan egitea) hala eskatzen badute eta hala definituta ageri badira aurkeztutako agiri teknikoetan.

Agiri horiek, beraz, eskaerak aurkezteko finkatutako epearen barruan aurkeztu beharko dira, eskaerarekin batera.

21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako, ondasun eta eskubideen titularra izango da bat baldin eta ondasun eta eskubide horiek toki erakundearen izenean izena emanda badaude jabetza erregistroan, edo bestela, toki erakundearen Ondasunen Inbentarioan jasota badaude.

5. Laguntzak esleitzeko araubidea eta hautatze irizpideak

Laguntzak esleitzeko araubidea eta aplikatzekoak diren hautatze irizpideak ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 20. artikuluan daude jasota.

6. Prozeduraren ebazpena eta jakinarazpena

Prozeduraren ebazpena eta haren jakinarazpena ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

Toki erakundeei idatziz jakinaraziko zaie eskatutako obra horiek programan sartu ala kanpoan utzi ebazten duen ebazpena. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du.

Toki erakunde onuradunak, berriz, bete egin beharko ditu dirulaguntzak emateko ebazpenaren jakinarazpenean ezarritako baldintzak eta betekizunak.

7. Obrak burutzeko eta agiriak aurkezteko epea.

Deialdi honen babesean diruz lagundutako obrak amaitzeko muga eguna 2017ko azaroaren 30a da, eta orobat obrak gauzatu direla frogatzeko agiriak (fakturak, eta hala balegokio, obra ziurtagiri behar bezala onartuak) aurkezteko; behar adina agiri, hain zuzen, dirulaguntza kalkulatzeko eta haren ordainketa izapidetzeko.

Ordainketaren egiaztagiria aurkezteko epea 2 hilabete izango da, dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera.

8. Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean

Gertatuko balitz "Obra txikiak egiteko" laguntza programaren kontura diruz lagundutako jardun bat aldi berean beste dirulaguntza batzuekin ere finantzatzea, 21/2013 Foru Arauaren 24. artikulua horretarako xedatutakoari jarraituko zaio.

9. Dirulaguntzak errebokatzea eta itzultzea

Funtsezkoak dira dirulaguntzak emateko eta benetan jasotzeko ezarri diren baldintzak; hortaz, bete ezean, guztiz errebokatuko dira, eta itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak, eta, hala badagokio, aurre egin beharko zaie dirulaguntzak arautzen dituen foru araudian aurreikusitako erantzukizunei.

Hirugarrena. Ahalmena ematea Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko diputatuari aintzat hartutako obrak izapidetu eta gauzatzeko behar adina egintza eta xedapen eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 22a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreken zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ